

EUSKAL SAGARDOA

'Bertako plazerra' lelopean, Euskal Sagardoaren sektoreak pozik ekin dio denboraldiari

EUSKAL SAGARDOAREN BARRUAN 1,2 MILIOI LITRO EGIN DITUZTE 48 SAGARDOTEGIEK, BERTAKO 250 SAGASTIETAKO 2 MILIOI KILO SAGAR ERABILITA

Euskal sagardoaren sektorea osatzen duten eragileak pozik agertu dira denboraldi berriak ekarriko duenarekin: "Txotx denboraldia berezia da, sagardoazaleei eta bezero guztiei sagardoaz gozatzeko formatu berezi bat eskaintzen dielako, sagardo berriak dastatu eta konpartitzeko, formatu sozialean, lagun artean, urteko sasoi batekin lotua eta gure egutegian markatzen duguna. Aurtengo denboraldia pozik hasiko dugu, bi urteren ondoren txotxetik dastatu ahal izango baitugu sagardo berria. Kupeltegiko giroa itzuliko da gure sagardotegietara, eta sagardoaz hitz egiteko aukera izango dugu lehenago egin ohi genuen moduan, zutik eta kupeltegian bertan, uztia berria nolakoa datorren ezagutu eta gozatzeko", esan zuten Joan den urtarrilaren 10ean, Donostian, eskaintako prentsaurrekoan.

Aurtengo ekoizpenari dagokionez, 2022ko uztia aurrekoa baino txikiagoa izan da kopuruz. Aurreko urtean uztia handia izan zen eta 2022an txikiagoa espero zitekeen arren, udarako eguraldi lehorrak are eta murritzagoa egin dute uztia. Horrek eraginda, izaera handiagoko sagarra etorri da, bai tanino aldetik eta baita azukre aldetik ere, eta ondorioz izaera handiagoko Euskal Sagardoak izango dira aurtien sagardotegi gehienetan, alkohol graduazio handiagoarekin.

Gauzak horrela, Euskal Sagardoa Jatorri Izendapenaren egiaztapenarekin ekoiztu den sagardo litro kopurua 1.200.000 litro ingurukoa izan da eta horretarako 2 milioi kilo sagar bildu dira. Euskal Sagardoa egiten duten sagardotegiak 48 dira (gehienez gipuzkoarrak 42; bizkaitarrak 4, eta arabarrak 2). Euskal Sagardorako sagarra ekoizten duten sagargileak, berriz, 250 dira eta guztira ia 500



Euskal Sagardoaren sektoreko ordezkariak Donostian bildu ziren pasa den urtarrilaren 10ean. Argazkia: N.G.

hektarea erabiltzen dira horretarako.

%25 igoko da sagardoa

Bestalde, 2023ko kanpainari begira, sektoreak iragarri du sagardo botilaren prezioak %25eko igoera izango duela inflazioaren ondorioz, izan ere, beiraren, kartoiaren, energiaren eta gasoilaren prezioen igoerak eragin zuzena baitute sagardoaren kostuetan. "Sektore gehienetan pasa den moduan, prezioak eguneratu beharra dauka sagardo sektoreak ere, egungo

2023ko kanpainari begira, sagardo botilaren prezioak %25eko igoera izango du inflazioaren ondorioz

egoerari aurre egin ahal izateko", ohartarazi dute.

Bertako plazerra da sagardoa lelopean, Euskal Sagardoaren aurtengo kanpaina zenbait berrikuntzarekin etorriko da. Esate baterako, aurtengoan sagardo dastatze gidatuak eskainiko dituzte zenbait sagardotegitan. "Beste hainbat bisi-ta eta produktu eskaintzeaz gain, dastatze gidatua bezalako produktuak eskatu dizkigu joan den urteotan bertako bezeroak, eta hori dela eta hartu da hemendik aurre-

ra hori eskaintzeko erabakia. Aukera aparta da sagardogilearen eskutik produktuaren berezitasunak jasotzeko ere", argitu dute.

Bestalde, eta sagardoazaleari erraztasunak emate aldera, euskal sagardoaren online denda eta sagardotegietan klik bakarraren bitartez erre-serba egiteko sistema automatikoak martxoan jarraituko du sagardoa.eus webgunean. Aurreko urteetan izandako arrakastaren ondoren, gainera, sagardotegi gehiagotan erreserbatzeko aukera egongo da aurtien. ■ N.G.

SAGARDOA

OTZUA-ENEA

Osiñaga Auzoa
943 556 894
HERNANI
Gipuzkoa

EGYZKITZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

TEL. 943 67 26 13